



JARRAIBIDEAK, 2014 MARTXOAREN 31KOAK, HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO ZUZENDARIARENAK, DISEINUKO GOI MAILAKO ARTE-IRAKASKUNTZETAN SALBUESPEN EDO GRAZIAZKO DEIALDIA ARAUTZEN DUTENA

2/2006 Lege Organikoak, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa, VI. Ataleko hirugarren sailean goi mailako arte-irakaskuntzak ezarri eta arautzen ditu, haien artean arte plastikoak eta diseinua eta ondasun kulturalen kontserbazio eta zaharberritzea. 46.2 artikulua xedatzen du goi-mailako arte-irakaskuntzen edukiaren definizioa, eta beren ebaluazioa, europar markoan txertatzen den goi-mailako espainiar hezkuntzaren antolakuntzaren baitan egingo dela.

Promozio eta egotaldiari buruz 238/2012 dekretuak, azaroaren 21koa, Diseinuko goi-mailako arte-irakaskuntzak ezartzeko eta ikasketa-plana onartzeko dena, 9.1 artikuluan, salbuespeneko deialdi mugatuak arautzen ditu zera esanez: ikasleak ikasgai bakoitzeko, gehien jota, lau deialdi izango dituela ikasgaia gainditzeko eta bi deialdi ikasturte amaierako lana egiteko eta, bietan, ikastetxeek baimendu ahalko dutela deialdi berri bat, ikaslearen behar bezala justifikatutako eskariari erantzunez eta salbuespeneko izaeraz.

Adierazitakoa kontutan hartuta eta 193/2013 dekretuak, apirilaren 9koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenari jarraituz Zuzendaritza honek, berariaz, salbuespeneko deia arautu nahi du eta horretarako ezartzen ditu honako

JARRAIBIDEAK:

Lehenena.- Salbuespeneko deialdia edo graziazkoa. Xedea eta ezartzeko esparrua.

Honako jarraibide hauek Diseinuko goi-mailako arte-irakaskuntzetan salbuespeneko deialdia, edo graziazkoa, arautzea dute xede.

Bigarrena.- Salbuespeneko deialdia, edo graziazkoaren izaera.

Salbuespeneko deialdia, edo graziazkoa, maila ezberdinetako hezkuntza ikasketa antolamenduetan ohikoa eta orokortua dagoen baliabidea da. Salbuespeneko baldintza zehatzak gertatzen direnean deialdiak mugatzea du xedetzat, era honetan, ikastetxean ikasten dutenen egotaldia erabat agortua gera ez dadin.

**Hirugarrena.- Salbuespenezko deialdia emateko baldintzak**

Salbuespenezko deialdia baimendu ahal izango da lau deialdiak agortu ondoren eta ikaslearen eskariari erantzunez, irakasgai bakoitzean soilik behin, eta goi mailako arte irakaskuntzetan zehar bi ikasgaietan soilik (salbuespenez, hiruetan).

Eskaera aurkeztu ahal izango da:

- a) Salbuespenezko deialdia eskatzen den ikasgaiaren kreditu kopurua ordura arte gaindituak dituen kreditu guztien %10a edo gutxiagokoa denean.
- b) Ikasturte batean ikasleari gainditzeko geratzen zaizkion kredituak ikasturte horren kredituen %20 baino gutxiago direnean.

Laugarrena.-Eskabidea eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Salbuespenezko deialdiaren eskabidea ikasgaiaren laugarren deialdiaren kalifikazio negatiboaren komunikazio, edo, bere kasuan, honi egindako erreklamazioari ezetza jaso eta hilabeteko epean egingo da gehien jota. Eskabidea Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Hezkuntza Berriztatze zuzendaritzari aurkeztuko zaio ikastetxearen idazkaritzan

Eskaerari, behar bezala arrazoitutakoa, berau justifikatzen dituzten kausak egiaztatzen dituzten agiriak atxikiko zaizkio (gaixotasuna,, lanpostu batean hastea, seme-alaben zainketa, istripua edo bestelakoak).

Bosgarrena.- Ebazpena eta helegitea.

Eskabidea aztertu ondoren, Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzak ebatziko du ikastetxeko zuzendaritza kontsultatu eta eskatzailearen gorabehera akademiko zein pertsonalak kontutan hartu ondoren.

Aldeko ebazpenak eskabidea egin eta ondorengo bi ikasturteetarako izango du balioa. Salbuespenezko deialdia onartu zaion ikasleak beharrezko epean egin beharko du matrikula.

Salbuespenezko deialdia ezesten bazaio eskatzaileak gorako helegitea aurkeztu ahal izango dio Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza sailburuordeari, jakinarazpena eman eta hilabeteko epearen barruan.

Vitoria-Gasteizen , 2014ko martxoaren 31

Begoña Garamendi Ibarra
HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO ZUZENDARIA